

Immigrazioa eta abertzaletasuna

Pako Sudupe Elortza
UEU eta UPV/EHU, 170 or.
Bilbo, 2024

2023ko datuen arabera, Hego Euskal Herriko populazioaren % 13,6 Espainiatik kanpokoa da. Azken bi hamarkadetan indartu den fenomeno demografikoa da, 2003. urtean Hego Euskal Herrian bizi ziren pertsonetatik % 4 baizik ez baitzen Espainiatik kanpo jaio (Ikuspegi, 2023). Aldaketa horrek euskararen erabileran ondorio zuzenik eduki duen neurtzea zaila da. Euskararen erabileraren kale-neurketek adierazten dute 2003an % 13,3koa zela erabilera hori eta, aldiz, 2021ean kalean entzuten ziren elkarrizketen % 12,6 zela euskaraz. Hala ere, 2003tik gaurdaino, 1990eko hamarkadan euskararen erabilerak zuen goranzko joera alderantzikatu dela ere adierazten dute datuek (Altuna, Inarra, Basurto eta Uranga, 2022).



1. irudia. *Immigrazioa eta abertzaletasuna* argitalpenaren azala.

Pako Sudupek bi fenomeno horiek nolabaiteko harremana dutelako sentipena jasotzen du eta azpimarratzen du «immigrazioak euskaraz bizi nahi dugunoi planteatzen digun arazoa» (164. or.) ez dagoela eztabaida publikoan. Are gehiago, salatzen duenez, «abertzaleek ez dute, oro har, euskararen egoera immigrazioarekin lotzen» (152. or.). Arrangura horretatik abiatuta, atzera begirako bilaketa egiten du autoreak, jaso nahirik Hego Euskal Herrian lehenago gertatutako bi migrazio-olatu handietan euskalduntasuna arriskuan ikusi zutenek zer-nolako irakurketak plazaratu

zituzten: XIX. mendearen bukaerakoan eta 1950eko eta 1970eko hamarkaden artekoan.

Bide horretan, beste fenomeno batekin egiten du topo Sudupek, nabarmenduz 2000ko hamarkadaz geroztik immigrazioaren ondorioak abertzaleen diskurtsoan modu koherentean txertatzea ekiditen duela. Oztopo hori komunikabide eta iritzi-emaile espainiarrak dira, abertzaleei eragiten baitiete «markaje zorrotza eta beldurra etorkinekiko aferei buruz solasteko» (150. or.). Kataluniako adibideak gehitzen ditu autoreak, nazionalista katalanek immigrazioa arazo bezala aipatu dutenean jasotako kritiken gogortasuna aipatuz. Modu inplizituan, autoreak espainiar nazionalismoa oso kontuan hartu beharreko zerbait dela ematen du aditzera eta 2010ean argitaratutako lan soziologiko baten ondorioak ere jasotzen ditu horri lotuta. Lan horren arabera, Hego Euskal Herrira orain hamarkada batzuk Espainiako probintzia ezberdinetatik iritsi ziren pertsonen artean, abertzaletasunarekin identifikatu ez zirenek ez zuten beren burua migrantetzat eta euskara beren seme-alaben etorkizunerako traba bezala ikusten zuten. Ideia horri tira egiteak espainiar identitatean sakontzea ekarriko luke eta, agian, euskararen erabileraren egungo beheranzko joera gaur gaurko espainiar identitatearen ezaugarriei eta hedadura-ahalmenari lotuta ere ulertzea.

Autoreak, nahiz eta intuizio horri leku egin, beste bide bat hartzea erabakitzen du bere saiakeran. Horrela, liburuak euskal abertzaletasuna immigrazioaren auziaz mintzatu zenekoa jasotzen du, garai ezberdinetan izandako testuinguruekin eta eragin ideologikoekin lotuta. Zentzu horretan, azken urteotan euskaraz euskal abertzaletasunari buruz egin diren lan historiografikoen artean ekarpen ongiatorria da, orain gutxi López Adánek (2021a eta 2021b) eta Sudupe berak (2016 eta 2018) egin dituztenekin batera, euskaraz euskal abertzaletasunari buruz idatzi diren lan interesgarrien zerrendara (Zabalza, 2007; Leoné, 2008) gehituz. Euskal nazionalismoaren historian immigrazioai buruzko diskurtsoak izan duen bilakaera aztertzen du Sudupek eta proposamen aberatsa egiten du batez ere Arturo Kanpionen, Txillardegiren eta Rikardo Arregiren idatziak ekarri eta aztertzeko orduan.

Liburua bost kapitulutan antolatuta dago. Lehenean 1950eko hamarkadaren bukaerako eta 1960ko hamarkadako erbesteko aipuak jaso eta aztertzen dira (Irujo, Agirre, Xemein, Ibanagabeita, Tellagorri...). Autoreak batez ere Jose Antonio Agirreren mezuari ematen dio garrantzia, hurrengo kapituluaren bukaeran azpimarratzen duelarik ideologia jeltzalean aurreko hamarkadetan zehar gertatutako eboluzio ideologikoa eta ordurako jada ez zegoela erbesteko lehendakariaren mezuan «arrazismo izpirik batere» (80. or.). Bigarren kapituluan ideologia jeltzalea sortu zen testuingurura jauzi egiten du autoreak, XIX. mendearen bukaerara. Kapitulu horretan, Sabino Aranaren eta Arturo Kanpionen ideiak aztertzen ditu. Autore nafarraren analisia bereziki interesgarria da, nobela ezberdinetan Kanpionek eraikitzen dituen arketipoak eta hedatu nahi dituen ideiak aztertzen baititu Sudupek. Halaber, Kataluniarekin konparazio-ariketa egiten du, Prat de la Ribaren eta Cambóren ideiak eta Hego Euskal Herriko ideologoei izan zituzten harremanak ekarriarik.

Hirugarren kapituluak ETaren baitan eta haren inguruan sortu ziren iritziak biltzen ditu, 1960ko hamarkadatik 1970eko hamarkadaren bukaerara arte. Kasu horretan Sudupek Txillardegi egiten dio lekuri handiena, haren ikuspegiak sortzen zituen polemikak ere jasoz. Bestalde, Sudupek ederki asmatzen du mugaz gaindiko harremanen garrantzia eta XX. mendearen bigarren zatian gertatu zen euskal herritarren emigrazioaren fenomenoaren analisiaren lehen lerrora ekartzean. Rikardo Arregiren nazioarekiko eta euskararekiko ideiak ere jasotzen dira, ikus daitekeelarik ondorengo abertzaletasunaren mezuan eta ideologian hark izan zuen eragina. Hedapen diskurtsibo hark guztiak nola jeltzaleen mezua ere eraldatu zuen jasotzen du Sudupek, Martin Ugaldek 1970eko hamarkadaren hasieran argitaratutako testuak aztertuta.

Laugarren kapituluak Kataluniako kasua analizatzen du eta atal horretan Jordi Pujolek hartzen du protagonismoa, Francisco Clavelen figurari lotuta. Kapituluaren zehar Sudupek nolabaiteko inbidiaz begiratzen die katalanei: «guri ere horrelako burgesia nazionala falta izan zaigu» (132. or.). Bosgarren eta azken kapituluaren haria ere Kataluniatik abiatzen da, Heribert Barrerak egindako hainbat aipuk eragin zuten polemika abiapuntutzat hartuta. Ondoren, Xabier Arzallusen deklarazioek 2000ko hamarkadaren hasieran sortu zuten harrabotsa ere ekartzen du. Sudupek ideia bat azpimarratzen du, egungo migrazioaren fenomenoaren inguruan abertzaleek duten diskurtsoaren ahultasunaren kausa bezala nabarmenduz komunikabide nagusiek lortu dutela «euskal alderdi guztietako kide nabarmenenek gai horretan kikildu eta men» egitea (148. or.).

Liburuan zehar mahaigaineratzen dituen aipuetan eta ideietan, autoreak berak onartzen du eskaintzen duena «testu irekia dela, osatu beharrekoa» eta «interpretazio partzialak eta behin-behinekoak egiten» dituela (10. or.). Sudupek egindako interpretazio-proposamen horiek aztertzen dituen autoreen barne-logikak eta testuinguruaren izaera aldakorra hartzen dituzte kontuan, baita euskaldun intelektualen artean egondako eztabaida aberatsak ere. Baina hain zuzen ere sakontasunik ezean egon daiteke, ahultasunen bat seinalatzearen, saiakeraren muga. Esaterako, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arteko katalan nazionalismoari eta immigrazioaz izan duen diskurtsoari kapitulu osoa eskaintzen dio autoreak, baina ez ditu gehitzen historiografiatik hain zuzen ere auzi horiei lotuta egin diren ekarpenak (Lo Cascio, 2008 eta 2020; Oyón eta Romero, 2017).

Antzekoa gertatzen da XIX. mendearen bukaerako nazionalismoa aztertzean ere, historiografian sakonki jorratutako gaia baita, baita Hego Euskal Herriko kasuan ere (Corcuera, 1979; Juaristi, 1997; Díaz Freire, 2001; Archilés, 2006; Chacón, 2012; Aresti, 2017). Beste kasu batzuetan, hutsune historiografikoa halabeharrezkoa da, Hego Euskal Herriko frankismoari dagokionez adibidez. Zoritxarrez oso urrun baikaude oraindik Euskal Herrian frankismoaren eta haren bukaeraren garaiko historia indartsu eta eguneratua taxutzetik, batez ere historia sozialari eta kulturalari dagokienez, espainiar kasuan lan bikainak agertzen joan diren bitartean (Fuentes, 2017; Labrador, 2017; Domènech, 2022).

Beste elementu baten falta ere suma daiteke, alegia, immigrazioari eta euskal abertzaletasunari buruz egin diren beste irakurketa batzuekiko eztabaida eta jardun dialektikoa, hainbat historialarik Suduperen guztiz bestelako argudiaketak plazaratu eta hedatu baitituzte (Fernández Soldevilla eta López Romo, 2012, Chacón, 2006). Ariketa dialektiko hori egitea garrantzitsua da batez ere Suduperen asmoei lotuta, azaldu nahi baldin bada horrelako lanek kazetaritzan eta iritzi publikoan izan duten eragina gaia tratatzeko orduan eta prentsan immigrazioari buruzko edozein aipu errezeloz begiratzeko, aipu horiek euskal abertzaleek egin dituztenean. Baliagarri zatekeen, horri lotuta, autoreak oso modu interesgarrian Kataluniarako Francisco Candelena figura eta obra azpimarratzen dituen bezala, Hego Euskal Herrirako Raúl Guerra Garridoren *Cacereño* (1969) nobela eta haren eragina (edota erabilera) ere aztertu izana.

Laburbilduz, Pako Suduperen saiakera beharrezko proposamena da, etorkizun hurbilean pil-pilean egon daitekeen gaiari perspektiba historikoa ematen baitio. Horrela, euskal abertzaletasunaren aniztasun ideologikoa, testuinguruaren aldakortasuna eta ikuspegi kronologikoa aintzat hartzea behar-beharrezkoa dela azpimarratzen du, gaur egun oraindik euskal abertzaletasuna aztertzeko nagusi den korrante historiografikoak barneratu ez duena. Gorago esan bezala, ekarpen ongiatorria izanagatik ere, ikerketa oparo baten lehen pausoetan geratzen delako sententzia transmititzen du liburuak aldi berean, mahaigaineratzen dituen argudioei eta ideiei mamia emateko sakontasun historiografikoa funtsezkoa litzatekeelarik.

Erreferentziak

- Altuna Zumeta, Olatz; Inarra, Maialen; Basurto Arruti, Asier, eta Uranga Arakistain, Belén (2022). Hizkuntzaren erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Emaizta nagusiak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (125), 11-52. <https://doi.org/10.55714/BAT-125.1>
- Archilés, Ferrán (2006). «Hacer región es hacer patria». La región en el imaginario de la nación española de la Restauración. *Ayer*, (64), 121-147.
- Aresti, Nerea (2017). El gentleman y el bárbaro. Masculinidad y civilización en el nacionalismo vasco (1893-1937). *Cuadernos de Historia Contemporánea*, (39), 83-103. <https://doi.org/10.5209/CHCO.56267>
- Chacón, Pedro (2006). La identidad maketa. Hiria.
- Chacón, Pedro (2012). Introducción al estudio de la etapa barcelonesa de Sabino Arana Goiri (1883-1888). *Letras de Deusto*, (42), 155-182.
- Corcuera, Javier (1979). *Orígenes, ideología, y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Siglo XXI.
- Díaz Freire, Javier (2001). El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca. *Historia social*, (40), 79-96.
- Domènech Sampere, Xavier (2022). *Lucha de clases, franquismo y democracia. Obreros y empresarios (1939-1979)*. Akal.
- Fernández Soldevilla, Gaizka, eta López Romo, Raúl (2012). *Sangre, votos y manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)*. Tecnos. <https://doi.org/10.5944/hdp.22.2013.40809>
- Fuertes Muñoz, Carlos (2017). *Viviendo en dictadura. La evolución de las actitudes sociales hacia el franquismo*. Comares.

- Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia (2023). *20 años de evolución de la población en la CAE*. Ikuspegi.
- Juaristi, Jon (1987). *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Taurus.
- Labrador Médez, Germán (2017). *Culpables por la literatura. Imaginación política y contracultura en la transición española (1968-1986)*. Akal.
- Leoné, Santi (2008). *Euskal Herri imaginario baten alde*. Elkar.
- Lo Cascio, Paola (2008). *Nacionalisme i Autogovern. Catalunya, 1980-2003*. Afers.
- Lo Cascio, Paola (2020). El pujolismo entre gestión y cultura política: Unas notas interpretativas (1980-2003). *Ayer*, (120), 283-308. <https://doi.org/10.55509/ayer/120-2020-11>
- López Adán, Emilio (2021a). *Borroka armatua Euskadin. 1967-2011. Lehen liburukia. 1967-1980*. Maiatz.
- López Adán, Emilio (2021b). *Borroka armatua Euskadin. 1967-2011. Bigarren liburukia. 1981-1990*. Maiatz.
- Oyón, José Luis, eta Romero, Juanjo (argtz.) (2017). *Clase antes que nación. Trabajadores, movimiento obrero y cuestión nacional en la Cataluña metropolitana*. El Viejo Topo.
- Sudupe Elortza, Pako (2016). *Txillardegiren borroka abertzalea*. Elkar.
- Sudupe Elortza, Pako (2018). *Telesforo Monzon. Aristokrata abertzalea. EAJtik HBra: bilakaera politiko-kulturala*. Txertoa.
- Zabaltza, Xabier (2007). *Gu Nafarrok*. Alberdania.

Gorka Etxebarria Dueñas
Historia Garaikidean doktorea

